eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

| USaP | PAU |
|---|---|
| 2024/25 | 2024/25 |
| AZTERKETA EREDUA | MODELO DE EXAMEN |

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# DISEINUA *DISEÑO*

## AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Probak 2 atal ditu, bat diseinu-produktu baten analisiari buruzkoa eta bestea diseinu-proiektu baten errealizazioari buruzkoa. Bi atalak ebatzi behar dituzu.

1. atalean, planteatzen diren bi aukeretatik bakarra aukeratu eta erantzun behar duzu (A edo B AUKERA).

2. atalean zorrotz jarraitu behar duzu ezarritako gaien ordena.

Zure proposamena garatzeko eta aurkezteko egokitzat jotzen dituzun marrazteko material eta teknika guztiak erabili ahal izango dituzu.

Proba argi eta ordenatuta egiteko behar dituzun paper-orri guztiak emango dizkizugu.

## INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

La prueba consta de 2 apartados, uno de análisis de un producto de diseño y otro de realización de un proyecto de diseño. Debes resolver los dos apartados.

En el apartado 1 debes elegir y responder solo a una de las dos opciones que se plantean (OPCIÓN A u OPCIÓN B).

En el apartado 2 debes seguir rigurosamente el orden de las cuestiones establecidas.

Podrás utilizar todos aquellos materiales y técnicas de dibujo que consideres adecuados para el desarrollo y presentación de tu propuesta.

Se te facilitarán todas las hojas de papel que necesites para la realización clara y ordenada de la prueba.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

| USaP | PAU |
|---|---|
| 2024/25 | 2024/25 |
| AZTERKETA EREDUA | MODELO DE EXAMEN |
| **DISEINUA** | ***DISEÑO*** |

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# 1. ATALA

**(3.00 puntu)**

Bi aukeretako bat bakarrik erantzun behar duzu (A edo B aukera).

## A AUKERA

«Quo Vadis» liburuaren azaleko komunikazio-balioak aztertu, hura osatzen duten elementu ikonografikoak, tipografikoak eta kromatikoak kontuan hartuta.




QUO VADIS

*Eleberri hau antzinako Erroman garatzen da, Neron enperadorearen garaian. Marko Vinizio jeneral erromatarra kristautasunera bihurtutako Ligiaz maitemintzen da. Erlijio hori hedatzen hasia zen, eta haren praktikak ezkutuan mantendu behar zuen. Bere jarraitzaileak jazarriak eta martirizatuak ziren, Neron neurrigabe baten aginduz, zeinak Erromako suteaz akusatu zituen. Azkenean, Ligia erromatar zirkuko hondarretan hiltzetik salbatu ondoren, herriak bizkarra ematen dio Neroni eta kristauen alde agertzen da.*

Liburuaren azalaren diseinua
Manuel Estrada

## B AUKERA

Metro Bilbao imagotipoaren komunikazio-balioak aztertu, hura osatzen duten elementu ikonografikoak, tipografikoak eta kromatikoak kontuan hartuta.

metro
bilbao

# 2. ATALA
**(7.00 puntu)**

Parke publiko batean erabiltzeko hiri-paperontzi baten diseinua proposatu.

Proposamena ordenan egin behar duzu, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- A. Zure proposamenaren helburuak eta baldintzatzaileak idatziz planteatu.

- B. Planteatutako helburu eta baldintzatzaileetatik abiatuta, ideiak garatu zirriborro eta azalpen idatzien bidez.

- C. Koloretako behin betiko bat aurkeztu, zure proposamena behar bezala transmititzeko beharrezkotzat jotzen dituzun marrazki deskribatzaile guztien laguntzarekin.

# APARTADO 1

**(3.00 puntos)**
**Debes elegir y responder solo a una de las dos opciones (OPCIÓN A u OPCIÓN B)**

**OPCIÓN A**
Analiza los valores comunicativos de la cubierta de libro «Quo Vadis», considerando los elementos iconográficos, tipográficos y cromáticos que la configuran.




QUO VADIS
*Esta novela se desarrolla en la antigua Roma, en tiempos del emperador Nerón. El general romano Marco Vinicio se enamora de Ligia, convertida al cristianismo, religión que comenzaba a propagarse y cuya práctica debía permanecer oculta. Sus seguidores eran perseguidos y martirizados por orden de un Nerón desenfrenado que llegó a acusarles del incendio de Roma. Al final, tras salvarse Ligia de morir en la arena del circo romano, el pueblo da la espalda a Nerón y se declara a favor de los cristianos.*

Diseño de cubierta: Manuel Estrada

**OPCIÓN B**
Analiza los valores comunicativos del imagotipo de Metro Bilbao, considerando los elementos iconográficos, tipográficos y cromáticos que lo configuran.



# APARTADO 2
**(7.00 puntos)**

Realiza una propuesta de diseño de una papelera urbana para su uso en un parque público.

Esta propuesta debes realizarla ordenadamente, atendiendo a las siguientes cuestiones:

- A. Planteamiento por escrito de los objetivos y condicionantes de tu propuesta.

- B. A partir de los objetivos y condicionantes planteados, desarrolla ideas a través de bocetos y comentarios escritos.

- C. Presenta un definitivo en color, con la ayuda de todos los dibujos descriptivos que consideres necesarios para transmitir correctamente tu propuesta.

# DISEINUA / DISEÑO

## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Kritikoki eta zorrozki aztertzen ditu diseinu-produktu baten lengoaiaren alderdi sinbolikoak eta semantikoak, eta elementu sintaktikoak identifikatzen ditu **(3.00 puntu).**
2. Diseinu-proiektu bat behar bezala planifikatzen du eta, horretarako, helburuak eta baldintzatzaileak ezartzen ditu aldez aurretik **(1.50 puntu).**
3. Planteatutako helburu eta baldintzatzaileetatik abiatuta, oinarrizko diseinu proiektu bat formalizatzen du, behar zehatzei erantzuteko irtenbide sortzaileak eta berritzaileak aplikatuz **(1.50 puntu).**
4. Oinarrizko diseinu proiektu bat gauzatzen du, kontuan hartuta honek zer inplikazio dituen gizartean, kulturan, estetikan, teknikan, ergonomian, erabileran, kontsumo arduratsuan, gizarteratzean eta ingurumen-inpaktuan **(1.50 puntu).**
5. Proiektua gauzatzeko baliabideen eta tekniken aukeraketa egokia balioesten du, bai eta proiektuaren garapenaren eta aurkezpenaren zuzentasuna eta zorroztasuna ere **(1.50 puntu).**
6. Koherentziaz, kohesioz, zuzentasun gramatikalez, lexikoz eta ortotipografikoz transmititzen du aurkezpen egoki baten bidez **(1.00 puntu).**

## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1. Analiza de manera crítica y rigurosa los aspectos simbólicos y semánticos del lenguaje de un producto de diseño, identificando sus elementos sintácticos **(3.00 puntos)**.
2. Planifica adecuadamente un proyecto de diseño, estableciendo previamente objetivos y condicionantes **(1.50 puntos)**.
3. Formaliza, a partir de los objetivos y condicionantes planteados, un proyecto elemental de diseño, aplicando soluciones creativas e innovadoras en respuesta a necesidades concretas **(1.50 puntos)**.
4. Realiza un proyecto elemental de diseño teniendo en cuenta sus implicaciones sociales, culturales, estéticas, técnicas, ergonómicas, de uso, de consumo responsable, de inclusión social y de impacto medioambiental **(1.50 puntos)**.
5. Valora la selección adecuada de recursos y técnicas de ejecución, así como el rigor y la corrección en el desarrollo y presentación del proyecto **(1.50 punto)**.
6. Transmite con coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortotipográfica a través de una correcta presentación **(1.00 punto)**.